

ESPERIENTZIAK-EXPERIENCIAS / KULTURA-CULTURA / SIDRA-SAGARDOA / TURISMOA-TURISMO

2013 UDA: "SAGARDOA ETA ITSASOA" esperientzia turistikoa

SAGARDOAREN LURRALDEA - 16/05/2013 - 11:40

Sin comentarios



Museoetara bisita, sagardotegien bazkaria eta itsasontzian ibilaldia. Sagardoaren eta itsasoaren kultura ezagutzeko eta goatzeko plan perfektua da, museoak eta kultur guneak bisitatuaz (Sagardoetxea, Donostiako Aquarium-a eta Ondartxo), itsasontzian ibilaldi gidatu atsegina eginaz eta bazkari alai batekin sagardotegiko gastronomiaz gozatuaz.

Astigarragako **Sagardoetxea Museoa** gure elkargunea izango da eta Euskal Herriko sagardoaren kultura ezagutzeko gune egokia. Gisa honetako esperientziak ezin lezake **sagardotegiko ohiko**

menua alde batera utzi: bakailoa, bakailao tortilla, txuleta eta gazta intxaurrekin, eta nola ez, sagardoa. Hau guztia giro dibertigarrian dastatuko duzue. Izan ere, sagardotegiko bazkarian, sagardotegien munduko istorio eta bitxikeria guztiak umorez kontatuko dizkizuen pertsonaia izango duzue.

Arratsaldean, **itsasoa** zain izango duzue. Bi proposamen dituzue, gida bat lagun, sagardoa eta euskal kostaren arteko lotura historikoa ezagutzeko: Donostia eta Pasaia.

Donostian Kontxako Badia zoragarrian zehar nabigatuko duzue eta amaitzeko, **Aquarium**-go bisita gidatuaz gozatzeko eta akuarioko tuneleko emozioak bizitzeko aukera izango duzue.

Pasaia aukeratzeko baduzue, Gipuzkoako porturik garrantzitsuen eta aurreratuena dena, badian zehar ontzi tradizional batean nabigatuko duzue eta jarraian **Ondartxo** Itsas Kulturaren Zentroa bisitatu duzue, garai batean sagardo kupelak eramanaz itsasoak zeharkatu zituzten ontzien prototipoak ikusiaz.

1. aukera: Astigarraga – Donostia

- Sagardoetxeako bisita gidatua.
- Sagardotegiko bazkaria bakarriketekin.
- Donostiako badian zeharko ibilaldi gidatua.
- Aquarium-go bisita gidatua.

2. aukera: Astigarraga – Pasaia

- Sagardoetxeako bisita gidatua.
- Sagardotegiko bazkaria bakarriketekin.
- Pasaia badian zeharko ibilaldi gidatua.
- Ondartxo-ko bisita gidatua.

Ordutegiak:

- Goizeko ordutegia: 10:00.
- Eguerdiko ordutegia: 12:00.
- Arratsaldeko ordutegia: 16:00.

Erreserbak:

Sagardoaren Lurraldea: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

- **Central de Reservas de Donostia-San Sebastián:** 902 443 442 / reservas@sansebastianreservas.com

"**Sagardoa eta itsasoa**" esperientzia turistikoari buruzko informazio gehigo ikusi.

"**Sagardoa eta itsasoa**" esperientziaren bideoa ikusi.

Tags: Aquarium, Euskadi, experiencia turística, Ondartxo, paseo en barco, sagardoa eta itsasoa, Sagardoetxea, sidra y mar, turismoa

Anterior post

Lezo celebrará el Sagardo Eguna este sábado. Lezon Sagardo Eguna ospatuko da

Siguiente post

"Memoria del mundo rural" a través de diferentes trabajos del manzanal en Sagardoetxea. "Baserrí

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Besteak-Otros
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



"Sagastiak loretan"
ARGAZKI LEHIAKETA
Facebook-en.



"Baserrí munduko memoria"
sagastiko lan ezberdinen eskutik
Sagardoetxean.



2013 UDA: "SAGARDOA
ETA ITSASOA"
esperientzia turistikoa



Lezon Sagardo Eguna
ospatuko da larunbat honetan.